



ESPAINIAN BEHERA



Doinuaren jasotzailea eta bertso honen egilea: Xabier Amuriza (1941 Etxano, Bizkaia).

Doinuaren berri

Doinua eibartar batzuegandik jaso zuen Amurizak, “Agur sagar beltzeran” liburuan dionez. Eibartarrek doinu honetan abesten zuten Bilintxen “Potajiarenak” sorta (“Egunaren izena” doinuaren ordeztu).

Bertsoaren berri

“Bertso berriak horma zaharrei jarriak” sortakoa da bertsoa; 1972an idatzi zuen, kartzelako berri emanez (artean apaiza zela). Izan ere 1968tik aurrera, Francoren diktadura garaian, zazpi urte egin zituen preso Amurizak, hiru espetxealditan.

Gerora, sorta hau “Menditik mundura” kasetean ere zabaldu zuen (1978).

Espainian behera
han dago **Zamora**
basamortu hoberik
nonbait **izango da**.
Ez mendi ez itsaso
ez belar ez **lora**
hementxe bizi behar
hainbeste **denbora**
hain maite dugun Euskal
Herritik **kanpora**.

